

## Ramiro Gonzálezek Arabako berrikuntza sozialeko proiekturik onenak aitortu ditu, “komunitatea sortzen duten aukerez beterik datozelako”

Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak bultzatutako FISA foroaren bitartez, Arabako Foru Aldundiak ‘Giltza’ eta ‘Hesi birtualak’ ekimenak saritu ditu; gizarteratzeko ekimena, lehena, eta jasangarritasunerakoa, bigarrena

**Gasteiz, 2020ko irailaren 11.** Ramiro González Arabako diputatu nagusiak FISA sariak eman ditu gaur goizean, Arabako berrikuntza sozialeko proiekturik onenak aitortzeko. Lehen edizio honetan, Gasteizko Alde Zaharreko Unitate Pastoralaren ‘Giltza’ proiektua eta Izkiko Landa Garapeneko Elkartearen ‘Hesi birtualak’ proiektua izan dira sarituak, biak “etorkizunerako aukerez beterik datozelako eta komunitatea sortzen dutelako”, Arabako agintariak esan duenez.

Arabako Aldundiko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak bultzatutako FISA foroak egindako lanaren ondoren dator aitorpen hori. Topaketa eta gogoetarako ekimena da, Arabako gizarteko hainbat arlotako eragileek eratua gizartearen aldetik berritzaileak diren proiektuak eta ekimenak ezagutzera emateko eta indartzeko, eta Arabako gizartearen erronka eta aukera berriei aurre egiteko ingurune eraldatzaile prestatuagoa sortzen laguntzeko.

Besteak beste gizarteratzea, jasangarritasuna, kultura, prestakuntza eta enplegua edo zahartzea eta osasuna bezalako arloetako 24 ekimen hautatu dira, eta haietako bi dira gaur saritu dituzten proiektuak.

Sariak emateko ekitaldian, Ramiro Gonzálezek gaur egun bizi dugun osasun krisia aipatu du; esan duenez, egoera honetan, “bizitza eta lankidetzako esperientziak ezagutzen eta haietan parte hartzen ari gara, bai eta laguntza sare eskuzabalak, ekimen pribatuak eta solidarioak sortzen ere, pandemiaren ondorio ekonomikoei, sozialei eta lurraldean duen eraginari aurre egiteko helburuarekin”. Izan ere, diputatu nagusiak nabarmendu duenez, hain zuzen egoera honetan da agerikoa are behar handiagoa dagoela Arabako kolektibo eta eragileak animatu, bultzatu eta sustatzeko, lanean jarrai dezaten elkartasunaren, lankidetzaren, sormenaren eta berrikuntza sozialaren ikuspegitik.



## **Giltza, gizarteratzeko gakoa**

Giltza bitartekaritza zerbitzua da, eta etxebizitza bilatzen laguntzen die arraza, hizkuntza edo bestelako aurreiritziak direla eta alokatzeko zailtasunak dituzten pertsoneri. Proiektu horrek sareak sortzea lortzen du, eta ohikoa den horretatik haragoko irtenbideak aurkitzea. Gainera, “Aurreiritzi sozialei aurre egiten die, jarduera ekonomikoa sortzen du eta bizikidetzaz errazten du. Erronkak aukera bihurtzea lortzen du eta aukera horiek gizarte osora itzultzen dira”, adierazi du Gonzálezek.

## **‘Hesi birtualak’**

Bestalde, ‘Hesi birtualak’ proiektuak ahalbidetzen du bazka eremuak mugatzea eta abereak han kontrolatzea abeltzainek urrutitik gainbegiratuta, hesi fisiko edo elektrikorik gabe. “Produktu teknologiko horrek ekoizpen sektorearen eskaera bati erantzuten dio, baina ez hori bakarrik: gure lurraldea kudeatzen eta, nolabait, jarduera ekonomikoa jasangarri egiten laguntzen du, bai eta biztanleak gure landa ingurunean finkatzen ere”, adierazi du, gogobeterik, diputatu nagusiak, Fisa sariak emateko ekitaldian.

“Arabako Foru Aldundiak lan egin du eta lanean jarraituko du lurralde egituratu eta jasangarria sendotzeko, pertsona guztiok izan dezagun aukera kalitatezko zerbitzuak eskuratzeko eta, horretarako, erantzunkidetasuna eskatzen dut. Gaur, inoiz baino gehiago, behar-beharrezkoa da denok norabide berean arraun egitea, eta adimenez eta eskuzabaltasunez orekatzea gure lehiakortasuna, gure sormena eta gure ilusioa, Araba eta Arabako gizarteak bihur ditzagun gizarte heldu, aurreratu eta erreferentearen eredu eta, beste ororen gainetik, xede izan dezan, gaur egungo krisi garai honetan, gizarte horretan bizi garen pertsonon bizi kalitatea berreskuratzea”, esan du, amaitzeko, Arabako agintariak.